XEDAPEN OROKORRAK

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

1395

ERABAKIA, 2012ko otsailaren 28koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluarena, Euskadiko osasun-sistema publikoaren liburutegi birtualaren proiektua garatzeko Aholku Batzordea sortzeko dena.

Aztertuta geratu da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Erakunde Publikoaren estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua, eta kontuan harturik nolako garrantzia duen haren edukia jarduera zehatzen bidez garatzea, ontzat hartu da Euskadiko osasun-sistema publikoaren liburutegi birtualaren proiektua garatzeko Aholku Batzordea izango dena sortzeko proposamena. Gainera, liburutegi birtual horren proiektuarekin lotutako zenbait gai landu dira, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzutik eta Osasun eta Kontsumo Sailetik egin beharreko urratsak zehazteko. Horregatik guztiagatik, beharrezkoa eta are ezinbestekoa da berrantolaketa sakon bat egiteko ildoak garatzea, arlo horretan profesional sanitario eta azken erabiltzaile guztiak biltzen baitira, etorkizunean Euskadiko osasun-sistema publikoan liburutegi birtual bat eratzeko. Horrelaxe koordinatu nahi da prozesu osoa.

Euskadiko osasun-sistema publikoaren liburutegi birtualaren bidez, profesional sanitarioei baliabideak eman nahi zaizkie, asistentziaren, irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren kalitatea eta erakundearen kudeaketa sanitarioa hobetzeko. Osasun Saileko eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko liburutegiek osatuko dute liburutegi birtuala, eta liburutegi hori lanean ari da Euskadiko osasun-sistema publikoko profesional eta erabiltzaileentzako liburutegi bat garatzeko.

Finkatze-prozesuan aurrera egiten jarraitzeko, batzorde tekniko bat sortu beharra dago, ospitaleetako liburutegietako arduradunek osatuko dutena. Batzorde horrek liburutegi birtualaren garapenaz aholkua emango du, dauden baliabideak antolatuko ditu eta baliabide horiek nola erabili ere jakinaraziko du.

Proposamena Administrazioko eta korporazio-kudeaketako erakunde zentraleko zuzendari nagusiak egin du, orain sortzen den batzordeari esleituko zaizkion eginkizunak kontuan harturik eta 12.3 artikuluan jasotako agindua bete nahirik, erakunde zentralaren egitekoa baita aholkularitza eta laguntza teknikoko zerbitzu komunak eskaintzea, besteak beste, honako hauekin guztiekin zerikusia dutenak: zerbitzu sanitarioetako erakunde bakoitzaren programa eta aurrekontuak prestatzea, antolakuntza eta giza baliabideak, hirugarrenekiko kanpo harremanak, informazio eta komunikazio sistemak, aholkularitza juridikoa, finantza kudeaketa, baliabide materialen eta zerbitzu osagarrien kudeaketa, zerbitzuen jarraipena, kontrola eta ikuskapena, interes orokorreko helburuen estatistika, eta argitalpenak.

Behin proposamena aztertuta, entitate publikoari estatutu sozialen 4.1 artikuluak ematen dion eskumenaren barruan kokatu behar da ekintza hau; izan ere, artikulu horren arabera, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak nortasun juridiko publiko berezia du, eta bere helburuak betetzeko gaitasun osoz jardun ahal izango du. Eta eskumen horren bidez, informazio-mailak etengabe hobetzera bideratutako jarduerak behar bezala betetzea lortu nahi da, 3.b) artikuluarekin bat etorriz.

Adierazitakoarekin bat, eta gorago aipatutakoa betetze aldera, estatutuen 8.5 artikuluan ematen zaizkion eskumenez baliatuz, Administrazio Kontseilu honek honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Lehenengoa.– Euskadiko osasun-sistema publikoaren liburutegi birtualaren proiektua garatzeko Aholku Batzordea sortzea. Batzorde horren eskumenak segidan daude aipaturik.

Bigarrena.– Batzorde horrek entitate publikoaren kide anitzeko organo gisa jardungo du, batzordea eratzeko lehenengo saioan ezartzen denarekin bat etorriz; beteko da, orobat, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. eta III. kapituluetan eta II. tituluan xedatutakoa. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Zuzendaritza Nagusiaren menpean egongo da, hierarkikoki eta funtzionalki. Bere egitekoak azkarrago betetzeko, bere baitan lan-taldeak sortu ahal izango dira. Lan-talde horien emaitzak batzordeak onetsi beharko ditu.

Hirugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saileko zuzendaritzen ordezkariek eta ordezkari teknikoek osatuko dute aholku-batzordea.

Laugarrena.– Aholku-batzordeak honako organigrama hau izango du:

– Batzordeburua, batzordearen koordinatzailea izango dena eta zuzendari maila izango duena.

– Idazkari bat, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Aholkularitza Juridikoko Zuzendariordetzako kidea dena.

– Zenbait bokal, zerbitzu-erakundeetako liburutegietako eta Osasun eta Kontsumo Saileko liburutegietako zuzendariak edo kudeaketa-teknikariak izango direnak.

Bosgarrena.– Batzordeak arlo horretako lege-esparruan egin beharko ditu bere eginkizunak, honako hauekin koordinaturik: Asistentzia Sanitarioko Dibisioa, Giza Baliabideen Dibisioa, entitate publikoaren Ekonomia eta Finantzako Dibisioa eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saileko Ezagutzaren Gestioko Zuzendaritza. Batzordeko kideak edo beren ordezkoak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak izendatuko ditu, ebazpen bidez; gainera, batzordeak zer eginkizun izango dituen ere erabakiko du. Batzordeko bi kide batzordeburu eta idazkari izango dira, eta zuzendari berak izendatuko ditu.

Aholku-batzordeari atxikitako azpibatzordeak eratu ahal izango dira, hala nola, Baliabide Dokumentalak Hobetzeko Taldea, Baliabide Bibliografikoak Eskuratzeko Taldea, Minisite Taldea, Dokumentuak Kudeatzeko Sistema Integratuko Taldea, tokiko baliabide dokumentalak Biltegiratzeko Taldea, prestakuntza-taldea, eta abar... eta proiektua garatzeko beharrezko ikusten den beste edozein talde.

Seigarrena.– Erabaki honek hartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu nahiz ez, eta batzorderako izendatutako kideei jakinarazpena egin nahiz ez.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 28a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko lehendakaria,
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.